



GZ

GIZARTERATUZ
monografikoak



Nahi ez diren bakardadeak



Nahi gabeko bakardadea, XXI. menderako erronka

Azken urteotan, bakardadea herrialde askotako gizarte- eta politika-agendan gai nabarmena bihurtu da. Erresuma Batuak aurrea hartu zuen 2018an, estrategia nazional bat diseinatu eta ministerio berri bat sortuta estrategia nazional bat abian jartzeko. Hala ere, covid-19a iritsi arte ez dela bakardadea gizartearen problematikaren izaera duena esan liteke, eta, beraz, ongizate-estatuari eragiten diona, prebentzio-politikak eta gizarte-sarea indartzeko politikak eskatzen dituena.

Bakardadea oso fenomeno konplexua da, eta, beraz, kontzeptualizatu eta neurtzen zaila da (Adinberri Fundazioa, 2022: 18). Sarritan, gizarte-isolamenduarekin nahasten da, hau da, gizarte-harremanen eskasiarekin edo existentzia objektiborik ezarekin, baina, bata eta bestearen artean loturak dauden arren, errealitate desberdinak dira: pertsona bat isolatuta egon daiteke bakarrik sentitu gabe, edo alderantziz. Bakardadearen definizio zabalduenak modu honetan deskribatzen du: pertsona batek nahi duen gizarte-harremanen kantitatearen edo kalitatearen eta benetan duenaren arteko desoreka. Beraz, esperientzia subjektiboa da, emozio negatiboekin batera doana, tristura, frustrazioa, lotsa edo errua bezalako emozioekin.

Bakardadea puntuala, errepikakorra edo iraunkorra izan daiteke, eta hura eragiten edo areagotzen duten hainbat faktoreekin lotzen da, bai sozialekin bai indibidualekin. Gizarte-mailan, trantsizio demografikoa, urbanizazioa, globalizazioa edo familia- edo bizitegi-egituraren eraldaketak bezalako prozesuek eragin argia dute nahi ez den bakardadean. Gauza bera gertatzen da kultura-izaerako aldaketekin, adibidez, indibidualismorako joerarekin. Arlo psikologikoari dagokionez, bakardadea nortasunarekin eta estilo kognitiboekin lotu izan da. Bestalde, baldintza edo

bizitza-gertaera jakin batzuekin erlazioa dute (ezgaitasuna, gaixotasuna, mendekotasuna, erretiroa, galera afektiboak), eta bakardade-sentimenduak eragin ditzakete. Horri dagokionean, bizi-etapen arteko trantsizioak nahi ez den bakardadea esperimintatzeko garai gisara bereziki ohikoak izaten dira.

Nahi ez den bakardadearen prebalentzia neurtzen den ikerketen eta gizartearen arabera aldatu egiten da. 2016an, EB-ko biztanleriaren % 12 inguruk egunaren erdia baino gehiagoan bakarrik sentitzen zela adierazi zuen; eta egoera horrek nagusiki adineko pertsoneri eragiten zien, eta ez zen hain ohikoa Europako iparraldeko herrialdeetan (%6), Europar Batasuneko gainerako herrialdeekin konparatuta (Ikerketa Gune Bateratua, 2021: 7) Covid-19aren pandemiak egoera hori aldatu zuen, izan ere, lehen hilabeteetan bakardade deklaratu bikoiztu egin baitzen eta biztanleria komunitarioaren %25era iritsi baitzen; gazteen artean hazkunde nabarmena gertatu zen; eta aldi berean herrialdeen arteko desberdintasun geografikoak desagertu egin ziren hein handi batean. Espainian, oraintsu argitaratutako inkesta baten arabera (Casal *et al.*, 2023), nahi ez den bakardadeak 15 urtetik gorako biztanleriaren %13,4ri eragiten diola adierazten du; eta emakumeen (%14,8) eta gizonen (%12,1) arteko aldea oso urria da. Euskadin, aitzitik, emakumeen artean prebalentzia handiagoa ageri da (emakumeen %4,1k bakarrik sentitzen direla dio, eta gizonetatik %2,4k, Euskadiko Osasun Inkestaren azken emaitzen arabera).


Bakardade-arriskua ez da modu homogeenan banatzen biztanleria osoan, eta, hain zuzen ere, literaturak aldagai soziodemografiko jakin batzuekin lotura duela agerian utzi du (Martín Roncero y González-Rábago, 2021: 433). Emakumeen artean fenomeno honen prebalentzia altuagoa agertzen den arren, beste aldagai batzuen arabera kontrolatzean sexuaren arteko aldeak desagertu ohi dira. Dirudienez, egoera zibila bakardadearekin lotuta dago, ezkongabeen edo alargunen artean maiztasun handiagoa baitago. Ikerketen arabera, zaurgarritasunak eta gizarte-bazterketak bakardade-arriskua areagotzen dute. Adina bakardadeari lotutako beste faktore bat da, eta gazteen eta adinekoen artean hautematen da gehien. Hala ere, bakardadeak bizi-zikloan izan duen eragina eta berezitasunak ez dira behar bezain zehatz ezagutzen; izan ere, ikerketa gehienak zahartzaroan zentratu dira, eta soilik duela gutxi beste adinaren araberrako talde batzuetan arakatu da, bereziki gazteen artean.

Nahi ez den bakardadearen ondorioak ez dira ondoeza emozionalera mugatzen. Martín Roncero eta González-Rábago, (2021: 433) egileek nabarmentzen dutenez, "nazioarteko ikerketek bakardadea osasun-egoera okerragoarekin lotzen dela agerian utzi dutenez, kausa guztiengatiko heriotza-tasa handiagoa sortzen du: hipertentsioa eta gaixotasun koronarioak izateko arrisku handiagoa, osasun mentaleko arazoak (depresioa eta suizidioa, esaterako), eta osasunerako kaltegarriak diren jokabideak izateko aukera handiagoa (hala nola tabakoa gehiago kontsumitzea edo jarduera fisikoaren maila txikiagoa izatea, edo obesitate handiagoa). Luzetarako azterketek modu sendo eta garrantzitsuan erakutsi dute bakardadearen eta osasunaren arteko lotura hori.

Ikerketa batzuek nahi ez den bakardadeak osasunean eragiten dituen kalte horien kostu ekonomikoa kalkulatu dute. 2023ko apirilean argitaratutako txosten baten arabera, fenomeno horrek 14.141 milioi euroko kostu nabarmena dakar Espainian (BPGren % 1,17); errezeta farmazeutikoen zenbatekoa, ospitaleen eta beste laguntza-zerbitzu batzuen erabilera eta produktibitatearen galera soilik kontuan hartuta. Kostu ukiezinari dagokionez, kalkulatzen da bizi-

kalitatea % 2,8 murrizten dela, kalitatearen arabera doituta (Casal, B., et al., 2023: 13).

Nahi ez den bakardadearen hedadura eta horren ondorioen garrantzia ikusita, gaian esku hartzen ari diren administrazio publikoak gero eta gehiago dira. Gai horri buruzko estatu-politika nagusien berrikuspen batek (Adinberri Fundazioa, 2022: 35) bakardadeari erantzun integrala emateko hiru mekanismo osagarri identifikatzen ditu: estrategien diseinua eta inplementazioa (Eskozia, Gales, Herbehereak, Erresuma Batua), goi-mailako erakunde espezializatuak abian jartzea (ministerioak Japonian eta Erresuma Batuan, batzordea Frantzia eta ekintza-programak onartzea (Herbehereak). Halaber, zenbait herrialdetan berariazko estrategia bat onartzera bideratutako ekimenak jaso dira —edo, gutxienez, gaia Estatuko agenda politikoan sartzera bideratutakoak— (Alemania, Ipar Irlanda, Portugal), eta bakardadeari heltzeko estatu-mailako batzordeak, sareak edo elkarteak sortu dira. Era berean, arazoari aurre egiteko ekimenak hainbat eskualde eta udalerritan abian daude, eta horietako batzuk dagoeneko lurralde-irismeneko berezko estrategiez hornituta daude. Euskadin, Gipuzkoan eta Araban horrelako tresnak abian daude, eta Eusko Jaurlaritza berea egiten ari da, aurrekoekin lerrotatzen dena. ●





DATUAK

4 | GIZARTERATUZ MONOGRAFIKOAK

Nahi ez den bakardadea neurtzeko zailtasunak izan arren, zenbait inkestek fenomeno horretara hurbiltzeko galderak gehitu dituzte. Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkestaren kasuan, 2018ko edizioan galdetegian bakardadearen pertzepzioari buruzko galdera bat sartu zuen.


Estatistika-eragiketa horren emaitzen arabera, EAEko biztanleen % 3,3k beti edo sarritan bakarrik sentitzen direla diote, eta egoera horien prebalentzia emakumeen artean handiagoa da (% 4,1), eta 75 urte eta gehiagoko pertsonen artean (% 6,6).

Beste ezaugarri batzuk kontuan hartuta (adibidez, hezkuntza-maila), datuek egoera horien presentzia handiagoa omen da ikasketarik gabekoen edo lehen-mailako ikasketak dituztenen artean (% 4,8), eta gero eta txikiagoa omen da biztanleriaren prestakuntza-maila handitzen den heinean.


Bestalde, egoera sozioekonomikoa kontuan hartuta -inkestan parte hartutako biztanleen egungo edo iraganeko lan-okupazio ordainduaren arabera esleitua-, klase baxuagoetan dauden pertsonak, hau da, kualifikaziorik gabeko lanak dituztenek, hautemandako bakardade-intzidentzia handiagoa dutela (% 5,6) ikusten da.

Gráfico 1. Beti edo sarritan bakarrik sentitzen diren pertsonen prebalentzia (%). Euskadi, 2018


SEXUA ETA ADINA



HEZKUNTZA MAILA



KLASE SOZIALA



Iturria: EAEko Osasun Inkesta. 2018

Euskal herritarren artean nahi ez diren bakardadeei buruzko informazioa ematen duen beste inkesta bat Matia Institutuak, Eusko Jaurlaritzak eskatuta, Euskadiko 55 urte eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzei buruz egindako inkesta da.

Bakardadeak hainbat ikuspuntutatik aztertzen ditu azterlan honek, eta ondoko zifra hauek ematen ditu:

- **Bizitegi-bakardadea: Euskadin 55 urte eta gehiagoko lau pertsonatik bat bakarrik bizi da, eta ehuneko hori handiagoa da emakumeen eta 80 urte eta gehiagoko pertsonen artean.**
- **Bakardade objektiboa: 55 urtetik gorako biztanleriaren %10 inguruk ez du harremanik hilero inolako seniderekin edo lagunen edo auzokideen eremuko beste pertsona batzuekin.**

- **Adierazitako bakardade subjektiboa: %7k baino gehiagok bakarrik sentitzen dela dio, eta laurogei urtetik gorako pertsonen eta eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza behar dutenen artean gizarte-harremanetan gabeziak hautematea handiagoa da.**
- **Bakardade subjektibo pribatua: gizarte-sareei buruzko galderen bitartez hautemandako bakardadeak eta konfiantzazko harremanen prestasunak %24,7ri eragiten dio, aitortutako zifra baino askoz handiagoa dena.**

Halaber, COVID-19ak eragindako osasun-krisian hartutako mugikortasun- eta bilera-murrizketen neurriek bakardade-sentimenduak eta isolamendu-arriskua areagotzen lagundu dutela aipatu behar da, hainbat ikerketaren arabera.


Tabla 1. Bakardade-egoera ezberdinak Euskadiko 55 urte eta gehiagoko biztanleen artean

		Bizitegi-bakardadea	Bakardade objektiboa		Bakardade subjektiboa	
			Familiakoa	Familiakoa ez dena	Adierazia	Pribatua
Sexua	Gizona	17,8	10,5	8,8	5,7	24,6
	Emakumea	31,8	9,1	11,1	8,5	24,8
Adina	55-64 urte	16,8	10,7	6,6	5,8	21,7
	65-79 urte	26,0	9,6	8,5	6,5	25,4
	80 eta gehiago	41,6	7,8	20,2	11,5	29,3
Habitata	Landatarra	21,4	7,1	9,9	6,4	23,7
	Bitartekoa	24,3	8,6	8,8	9,7	25,1
	Urbanoa	29,2	12,0	10,6	7,2	25,4
Laguntza-premia	Ez du behar	23,8	9,8	8,1	5,6	22,9
	Behar du	35,6	9,2	21,0	16,4	35,1
Guztizkoa		25,5	9,7	10,1	7,2	24,7

Iturria: Euskadiko 55 urte eta gehiagoko pertsonen bizi-baldintzei buruzko inkesta. 2020

Zein da esku-hartzeen eraginkortasuna bakardadeari aurre egiteko?

Europar Batasunak eskatutako txosten honek bakardadearen aurkako esku-hartzeen ebaluazioari buruzko literatura berrikusten du, eta eraginkortasun handiena dutenak aipatzen; baita horrelako azterlanen diseinuan eta ezarpenean hobekuntzak iradokitzen dituztenak ere.



Beckers, A. *et al.*
Effectiveness of Interventions Tackling Loneliness: A Literature Review.
 Luxemburgo, Oficina de Publicaciones de la Unión Europea, 80 or., 2022. Erref. 585896.

Bakardadea gizarte-arazo gisara onartzeak eta horri aurre egiteko politiken eskariak izateak esku-hartze motarik eraginkorrenak ezagutzeko beharra piztu dute. Europako Parlamentuak babestutako bakardadeari buruzko proiektu pilotu baten esparruan, Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratuko ikertzaileek (*European Commission's Joint Research Centre*) gaiari buruz ingelesez argitaratutako literatura aztertu dute, eta horretarako PsycInfo datu-basea eta eskuzko bilaketak erabili dituzte. Baheketa egin ondoren, 37 azterlan hautatu zituzten, eta horietatik 27 azterketa sistematikoak ziren, eta gainerako 10 metaanalisiak ziren.

Berrikuspen sistematiko gehienek adinekoei aplikatutako esku-hartze teknologikoen inguruan Estatu Batuetan egindako ikerketak aztertzen zituzten. Metaanalisien oinarrian, batez ere, Estatu Batuetan eta adinekoekin egindako esku-hartzeak zeuden, eta horien artean, oinarri teknologikorik gabeko taldekako esku-hartzeak nagusitzen ziren. Txostenak emaitzak aurkezten ditu, biztanleria hartzailearen, esku-hartze motaren eta eragin orokorraren araberakoak, baina, hala ere, literaturaren mugek ondorio sendoak ateratzea esku-hartze edo xede diren talde jakin batzuetarako eragotzi egiten dute.

Aztertutako esku-hartze gehienek eragin positiboren bat badute bakardadean, baina ikerketak ezin du zehatz zehaztu zer motatako ekimenek lortzen duten eraginkortasun handiena, ezta zer faktorek zehazten dituzten gehien lortutako ondorioak. Eskuragarri dagoen ebidentziaren arabera, esku-hartze psikologikoei bakardadea murrizten dutela iradokitzen dute, eta gizarte-sostenguan, pertsonen arteko sareen eta gizarte-jardueren sustapenean oinarritutako esku-hartzeetan hori bera esan daiteke. Bakardadea murriztearekin batera, aurreikusitako esku-hartze batzuek beste aldagai batzuetan ere eragiten dute, hala nola sintoma depresiboetan edo gizarte-interakzioetan.

Oro har, dokumentuaren egileek esku-hartzeen eraginkortasuna esku-hartzeak hartzaileei egokitzen zaizkien mailaren arabera dela uste dute. Logikari jarraikiz, badirudi adinekoei onura handiagoa ateratzen dietela gizartean parte hartzeko aukerak zabaltzen dituzten ekimenei, salbu eta parte-hartze hori sare sozial digitalen bitartez bideratzen bada, kasu horretan emaitzak anbibalenteak baitira. Haurren eta nerabeen kasuan, erabilgarriagoak harreman-trebetasunak eskuratzea eta garatzea bideratutakoak izan omen daitezke. Bestalde, faktore kulturek programen eta zerbitzuen eraginkortasunean eragin nabarmena izan dezaketela uste da.

Oinarritzat hartzen diren ikerketen ezaugarriek lan honetako emaitzak mugatzen dituzte. Lehenik eta behin, aztertu beharreko literaturaren ezaugarri nagusiak, salbuespenak salbuespen, kalitate eskaseko metodologia eta tamaina txikiko biztanleria-laginak dira, eta gizarte-zerbitzu eta -programen ebaluazioan nahiko ohikoak diren akatsak jasotzen dituzte. Halaber, erabilitako laginei buruzko informazio osoa gutxitan ematen da: sarritan ez da jakiten esku-hartzeak bakarrik dauden pertsonen edo biztanleria osoari zuzenduta egongo liritekeen, eta ez da zehazten

zer bakardade mota (soziala, existentziala, emozionala) landu nahi zen zerbitzu edo programa bakoitzean. Beste arazo bat da bakardadea izateko arrisku handia duten biztanle taldeak eta baztertutako taldeak ez zeudela behar bezala ordezkaturata literaturan. Ordezkagarritasun geografikoa ere ez dago bermatuta, izan ere, ikerketa gehienak Estatu Batuetan egin ziren eta gutxi ziren Europar Batasunekoak, non, gainera, ekialdeko eta hegoaldeko herrialdeak gutxiegi ordezkaturata zeuden. Azkenik, aztertu diren ikerketa gehienek banakako esku-hartzeak edo esku-hartze erlazionalak aztergai hartzen zituzten, eta, horregatik, komunitate- eta gizarte-mailan bakardadearen aurkako neurrien egokitasuna epaitzea oso arriskutsua da.

Muga horiek ezartzen duten zuhurtziarekin, txostenak literaturaren berrikuspenean eraginkorrenak izan diren esku-hartzeak uztartzea proposatzen du, hala nola, arlo psikologikokoak, gizarte-laguntzakoak, gizarte-sareak sortzean eta indartzean oinarritutakoak eta gizarte-jarduerak sustatzekoak. Ildo horretatik, tratamendu psikologikoetara iristeko oztupoak kentzea (itxaronaldiak, esaterako) eta medikuntzako eta psikologiako profesionalak bakardadearen arazoari buruz sentibilizatzea proposatzen da.

Aztertutako ikerketek ez dute desberdintasunik erakusten banakako eta taldeko esku-hartzeen artean, baina badirudi lehenak —lehen fasean behintzat— hobe direla profil jakin batzuetarako, adibidez, bakarrik denbora asko daramaten pertsonentzat, gizarte-trebetasun urriak dituztenentzat edo talde-inguruneetan hertsatuta sentitzen direnentzat. Egileak esku-hartze teknologikoen aldekoak dira, askotan emaitza onak lortzen baitituzte, baina ohartarazi dute arazo etiko handiagoak sortzen dituztela eta biztanleria ahulenarentzat baztertzailak izan daitezkeela. Azkenik, atalase baxuko esku-hartze sorta zabala inplementatzea gomendatzen dute, bakarrik dauden pertsonen erakargarrienak eta beren premiekin bat datozenak aukeratu ahal izan ditzaten.

Bakardadearen aurkako esku-hartzeen eraginkortasunari buruzko oinarritzko orientabideak emateaz gain, gai horri buruzko ikerketa sendotzeko dokumentuak zenbait orientabide eskaintzen ditu. Ildo horretatik, kalitate metodologikoa eta laginen tamaina hobekuntza-arlo nagusietako bi dira. Era berean, baztertutako taldeei arreta handiagoa eskatzen zaie —LGBTQ+ edo etorkinei, besteak beste—, edo bakardade-arrisku handiagoa dutenei —gazteei, osasun mentala duten pertsoneri—. Era berean, esku-hartze komunitarioei buruzko ikerketa gehiagoren

falta sumatzen da —adibidez, eskola-eremuan—, luzetarako ikuspegia duten azterlan gehiago eta Europar Batasunean ezarritako programen ebaluazio gehiago, batez ere hegoaldeko eta ekialdeko herrialdeetan. ●

Bakardadeari aurre egiteko esku-hartze tipologiak


	Sailkapena
Mann <i>et al.</i> (2017)	<ul style="list-style-type: none"> Zeharkako esku-hartzeak: osasunean eta ongizatean oinarritutako estrategia zabalagoak, agian, bakardadean zeharka eragin dezaketena. Esku-hartze zuzenak: aldaketa kognitiboak, trebetasun sozialen eta programa psikohezitzaileen entrenamendua, sozializaziorako laguntza, ikuspegi komunitario zabalagoak.
Masi <i>et al.</i> (2011)	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte-trebetasunen hobekuntza. Gizarte-sostenguaren hazkundera. Gizarte-interakziorako aukeren hazkundera Gizarte-kognizio desegokituari heltzea..
Gardiner <i>et al.</i> (2018)	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte-aholkularitza (<i>social facilitation</i>). Terapia psikologikoak. Gizarte- eta osasun-arreta. Animaliekin bideratutako esku-hartzeak. Adiskidetasun-harremanak sustatzea (<i>befriending</i>). Aisialdiko jarduerak edo trebetasunak garatzea.
Organización Mundial de la Salud (2021)	<ul style="list-style-type: none"> Banakako eta esku-hartze erlazionalak. Estrategia komunitarioak (azpiegitura, boluntariora). Gizarte-irismeneko estrategiak (legeria eta politikak).
Campaign to End Loneliness (2020)	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte-konexioko zerbitzuak (lortu, ulertu, lagundu). Sarrera-azpiegiturak (garraibideak, tresna digitalak, ingurune eraikia). Irtenbide zuzenak (ikuspegi psikologikoak, banakako edo taldeko esku-hartzeak).

Iturria: Beckers, A. *et al.* (2022: 12), egokitua.

X

IXEHETASUNEZ

8 | GIZARTERATUZ MONOGRAFIKOAK




Bakardadearen inguruko informazio-pilulak

Riera, J.R. (ed.).

Las soledades. Reflexiones, causas y efectos. Bartzelona, Icaria Editorial, 145 or. 2022. Erref. 585763.

2020an, Bartzelonako Udalak kontseilu zientifiko bat osatu zuen bakardadeari heltzeko eta, bereziki, gai horri buruzko udal-estrategia diseinatzeko, abian jartzeko eta ebaluatzeko. Liburuxka honek kontseilu zientifiko horretako kideek bakardadeari buruz egindako hainbat azterlan eta gogoeta biltzen ditu. Lanak dibulgazio-bokazio nabarmena du, testuen laburtasunean eta hurbileko estiloan islatzen dena, eta erabilitako iturri bibliografikoak bezalako elementu akademikoak alde batera uzten ez dituen; horrek interesatuei interesgarrienak zaizkien gaietan sakontzeko aukera ematen die. Dokumentua bakardadearen kontzeptuari buruz hitz eginez hasten da, ondoren fenomeno hori bizi-zikloan zehar aztertzeko. Bigarren multzo honetan, haurtzaroko eta gaztaroko bakardadeari buruzko hainbat testu sartu direla nabarmentzekoa da; ikuspegi hori ez da oso ohikoa literaturan, eta aipatutako estrategian eragiten du. Liburuaren azken zatian bakardadearen kausak eta arazo horri heltzeko moduak aztertzen dira.



Bakardadearen diziplina anitzeko hurbilketa bat

Moscoso, M. eta Ausín, T. Soledades.

Una cartografía para nuestro tiempo. Seriea: Dilemata. Madril, Plaza eta Valdés Editoreak, 337 or., 2021. Erref. 571379.

Lan kolektibo honek bakardadea eta gizarte-isolamendua ikertu nahi ditu, gizarte-erredundantiaren adierazpen korrelatibo gisa eta harreman-bazterketa eragin dezaketen faktore gisa. Kapitulu bakoitzak —lehenak izan ezik, sarrera izaera baitu— diziplina jakin batetik irakurketa bat proposatzen du, hala nola, filosofia, bioetika, soziologia, gizarte-antropologia, gizarte-psikologia, genero-ikasketak edo *urban studies* izenekoak. Horrela, nahi ez den bakardadea kontzeptu trinko gisa aztertzen da, deskribatzen eta ebaluatzen duena; gizabanakoaren eta gizartearen arteko gatazkaren isla gisa; edo zaintzaren bitartez prebenitu edo ebazten den harreman-sintonia falta bat erakusten duen elementu gisa. Ondoko hauek ere aztertzen dira: bakardadearen pertzepzioa kultura desberdinetan, bakardadeak osasunean dituen ondorioak eta inplikazio bioetikoak, eraikitako espazioaren eta bakardadearen arteko lotura, eta bakardadearen eta teknologia digitalen arteko elkargunea. Azkenik, nahi ez den bakardadearen ondorioak aztertzen dira bi biztanleria talde zehatzetan —paziente psikiatriko adingabeak eta ezgaitasuna duten pertsonak—, eta analisi narratiboa proposatzen da fenomeno hori hobeto ulertzeko tresna gisa.




Nahi gabeko bakardadeari aurre egiten

La soledad no buscada. Modelos de políticas públicas y compromiso de la ciudadanía. Seriea: Giza Eskubideei buruzko

Jardunaldiak-Udako Ikastaroak, 24. zk.. Vitoria-Gasteiz, Ararteko, 262 or., 2020. Erref. 556664.

Bilatu gabeko bakardadea eraldaketa demografikoak areagotu duen arazoetako bat da. Euskal Herriko Unibertsitateak 2021eko udan gaiaren inguruan antolatu zuen ikastaroak jasotzen duen argitalpena da honakoa. Bilatzen ez den bakardadea fenomeno konplexua izanik, eginiko aurkezpenak gaiaren inguruko arlo eta ikuspuntu ezberdinak jorratu zituen. Problematikaren kausak eta zergatiaren inguruko azterketa demografiko eta soziologiko batetik abiatzen da, gizarte-ikerikuntzako esfera anitzten perspektibei bide emateko. Besteak beste, nahi gabeko bakardadean dauden pertsonen zaintzaren garrantzia, jarduera egokiak eta arazoa osorik heltzeko estrategiak azaltzen dira. Administrazio-maila desberdinen parte-hartzea berebizikoa den arren, dokumentuan nahi ez den bakardadeari aurre egiterakoan udalerriek duten ezinbesteko papera argi azpimarratzen da. Bestalde, covid-19-aren krisiak fenomenoan izan duen eragin zuzen zein krudelago ere aztertzen da. Ondorio garbia da bakardade mota honek ez dakartzala soilik arazo indibidualak; gizarteari osoki eragiten diola.



Nahi ez den bakardadeari buruzko berrikuspen sistematikoa



Bakardadea Europar Batasunean



Nahi ez den bakardadea eta zahartzea Gipuzkoan

Mansfield, L. *et al.*

A conceptual review of loneliness across the adult life course (16+ years). Synthesis of qualitative studies and Appendix. Londres, What Works Centre for Wellbeing, 57 or., 144 or. 2019. Erref. 544269.

Dokumentu honek 15 urtetik gorako biztanleen artean nahi ez den bakardadeari buruzko ikerketa kualitatiboaren berrikuspen sistematikoaren emaitzak laburbiltzen ditu. Zegokion baheketaren ondoren, 144 dokumentu aztertu ziren. Txostenak hiru bakardade mota bereizten ditu: soziala, emozionala eta existentziala; eta lehenengoak azterlanik zabalena eta kalitate metodologiko handiena izan du. Adinekoen artean bakardadeak askoz ere arreta zabalagoa jaso du, eta gazteen artean bakardadeari buruzko ikerketek, berriz, gutxiena. Horrenbestez, dokumentuan literatura zientifiko honetan gutxien ordezkatuta dauden ikuspegiei eta adin taldeei buruzko ikerketak bultzatzea gomendatzen da. Bizitzan zeharreko bakardadeari buruzko analisi sofistikatuagoak lortzeko, esparru teorikoa aberastea iradokitzen da, trantsizioei eta aldaketei arreta handiagoa eskainiz eta identitatea (generoa, etnizitatea, ezgaitasuna, estatus sozioekonomikoa), traumak eta estigma bezalako faktoreak hartuta. Azkenik, metodologia mistoak gomendatzen dira, ikuspegi kualitatiboak eta kuantitatiboak gutxitan konbinatzen baitira azterlan berean.

Europako Batzordearen Ikerketa Zentro Bateratua.

Loneliness in the EU. Insights from Surveys and Online Media Data. Seriea: JRC Science for Policy Reports, Luxemburgo, Europar Batasuneko Argitalpen Bulegoa, 70 or. 2021. Erref. 566208.

Europako Batzordeak egindako txosten honek Europar Batasuneko herrialdeetako bakardadea eta horren arrazoiak aztertzen ditu. Emaitzek adierazten dutenez, bakardadea arazo garrantzitsua da Europan, eta zenbait pertsona talderi eragiten die, bereziki adinekoei, osasun mentaleko arazoak dituztenei eta diru-sarrera apalak dituztenei. Dokumentuak nabarmentzen duenez, bakardadeak eragin negatiboa izan dezake ekonomian eta, oro har, gizartearen, eta egoera hori arazo pertsonala ez ezik, arazo soziala ere badela erakusten du. Gainera, bakardadearen eta bizitzarekiko gogobetetzearen eta ongizate subjektiboaren arteko lotura aztertzen du, eta fenomeno horri heltzeko neurriak hartzeko beharra eskatzen. Txostenak komunikabide digitalen datuak ere erabiltzen ditu bakardadeari buruz zer dioten eta gai hori beste batzuekin nola lotzen duten aztertzeko, hala nola teknologiarekin, bizimodu urbanoarekin edo individualismoarekin. Txostenak ondorioztatzen duenez, bakardadea garrantziki handiko arazoa da EBn, eta ahaleginak egin behar dira haren kausei eta ondorioei aurre egiteko.

Sancho, M. (koord.).

Bakardadeak. Explorando soledades entre las personas que envejecen en Gipuzkoa. Donostia-San Sebastián, Matia Fundazioa Gerontologia Institutua, 222 or., 2020. Erref. 552270.

Obra hau, segur aski, gipuzkoar ikuspegitik egindako nahi gabeko bakardadeari buruzko azterlanik osoena da. Izan ere, ikerketa hainbat ikuspegi eta metodologia konbinatzeagatik nabarmentzen da; fenomenoaren konplexutasuna hobeto atzemateko. Hasteko, bakardadearen kontzeptuaz galdetzen dio modu propioan, eta haren alderdi eta esanahi desberdinak aletzen ditu, nazioarteko literatura zientifikoaren berrikuspen batean eta elkarrizketen bitarteko hurbilketa kualitatibo batean. Jarraian, azterlanaren ekarpenik berritzaileena aurkezten da: familia-etxebizitzetan bizi diren 55 urteko eta gehiagoko biztanleei egindako telefono bidezko inkesta, eta horretarako, ausazko laginketa bat erabiltzen da, eremu geografikoaren eta adinaren arabera geruzatua. Adin talde horretan, nahi ez den bakardadearen prebalentzia % 5,5ekoa izango litzateke, eta alarguna izatea, osasun txarra duela adieraztea eta bertan bizitzea generoa baino faktore prediktore garrantzitsuenen artean baino ez lirateke agertuko. Halaber, azterlanak laguntza emateko esku-hartzerik eraginkorrenak zehaztu nahi ditu, baina atzera begirako diseinua erabiltzeak lortutako emaitzak interpretatzerakoan zuhurtasuna eskatzen du. Amaitzeko, zahartzaroko bakardadearen aurrean lurralde-estrategia bat lantzeko oinarriak proposatzen ditu lanak.



IXEHETASUNEZ

10 IGIZARTERATUZ MONOGRAFIKOAK



Nahi ez den bakardadeak BPGren %1,17ko kostu hautemangarria dakar



Nola eragiten dio bakardadeak osasunari? Bizizikloaren eragina



Bakardadearen aurkako estrategia Erresuma Batuan

Casal, B. *et al.*

El coste de la soledad no deseada en España. Madril, Observatorio Estatal de la Soledad No Deseada, 124 or. 2023. Erref. 584692.

2023ko apirilean aurkeztutako dokumentu hau, ziur asko, Espainian nahi ez den bakardadeak eragindako kostu ekonomikoaren lehen estimazioa da. Azterlana 15 urtetik gorako biztanleriaren lagin adierazgarri bati egindako inkesta batean oinarritzen da, eta inkesta horrek bakarrik sentitzen zirela aitortzen zuten pertsonen informazio gehigarria eskatzen zien —fenomeno horren prebalentzia Espainiako gizartearen %13,4ra iritsiko litzateke (%14,8 emakumeetan eta %12,1 gizonetan)—. Ikerketak kostu ukigarriak (unitate monetariotan neurtuta) zein ukiezinak (kalitatearen arabera bizitza-urte gisa adierazita) kontuan hartzen ditu. Lehenengo kasuan, emaitzek nahi ez den bakardadeak gutxi gorabehera 14.141 milioi euroko kostua duela agerian uzten dute, hau da, BPGaren %1,17, eta horren barruan sartzen dira errezeta farmazeutikoak, ospitaleko egonaldiak, beste zerbitzu batzuen erabilera eta produktibitate-galerengatik soldata gordinak. Kostu ukiezinari dagokionez, nahi ez den bakardadeak bizi-kalitatearen %2,8ko murrizketa eragiten duela kalkulatu da, kalitatearen arabera doitzen dena.

Martín Roncero, U. eta González-Rábago, Y. **Soledad no deseada, salud y desigualdades sociales a lo largo del ciclo vital.** *Gaceta Sanitaria*, 2021, 35 bol. 5. zkia. 432-437 or. Erref. 556084.

Artikulu hau bakardadearen prebalentziari buruz Euskadin egin den ikerketa bakarrenetako bat da, eta fenomeno bizi-zikloaren ikuspegitik aztertzen du, osasun-arloko gizarte-desberdintasunak kontuan hartuta; ikuspegi horiek ez dira oso ohikoak oraindik gaiari buruzko nazioarteko literaturan. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko Osasun Inkestaren datuak aztertzen ditu, 25 urte edo gehiagoko biztanleriari dagozkionak (7.228 pertsona). Bakardadeari buruzko informazioa zuzeneko galdera baten bidez lortu zen (bakarrik sentitzen zara? Beti, askotan, batzuetan, inoiz ez) eta osasun aldagai gisa hartu ziren hautemandako osasuna eta osasun mentala. Emaitzek Euskadin lau pertsonatik bat nahi gabe bakarrik sentitzen dela agerian uzten dute, eta egoera hori ohikoagoa dela emakumeen eta gizarte-klase ahulenen artean. Prebalentzia handiena 80 urte edo gehiagoko pertsonen artean erregistratzen bada ere, 25 eta 44 urte bitartekoen artean ere nabarmena da. Gainera, bai bakardadeari lotutako desberdintasun sozialak, bai bakardadeak osasun txarrarekin duen lotura, sarriago ikusten dira heldu gazteen artean.

A Connected Society. A Strategy for Tackling Loneliness. Laying the Foundations for Change. Londres, HM Government, 84 or. 2018. Erref. 539849.

2018ko amaieran, Erresuma Batuko Gobernuak bakardadeari aurre egiteko estrategia nazional bat jarri zuen abian, gizarte-harremanak indartu nahi zituen. Ekimen aitzindari horretan jasotako proposamenek hiru ardatz dituzte: fenomenoaren hedapenari buruzko ezagutza hobetzea, baita arrisku- eta babes-faktoreei buruzkoa ere; gobernuko politika guztietan bakardadea zeharka sartzeari; eta, azkenik, fenomeno horri buruzko gizarte-erantzukizun bultzatzea, haren ondorioei buruz kontzientziatzeko eta estigmari aurre egiteko. Plana osatzen duten neurrien artean, ondoko hauek daude: ministerio-zorro espezializatu bat sortzea, hura neurtzeko adierazle nazional batzuk egitea, bakardadea duten pertsonak detektatzeko eta arretaz zerbitzuetara bideratzeko erreferentziazko profesionalak ezartzea (konektore komunitario gisa), edo tokiko azpiegiturak hobetzea, gizarte- eta komunitate-harremanak errazteko. Dokumentuak Erresuma Batuan bertan gizarte-ehuna indartzeko egiten ari diren esperientzia arrakastatsu asko biltzen ditu.



Esku-hartze komunitarioei buruzko azterlanak berrikustea



Nola lantzen da gizarte-bazterkeria jasaten duten pertsonen arteko bakardadea?



Gazteak, nahi gabeko bakardadea eta gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea

Noone, C. *et al.*

Community-based responses to loneliness in older people: A systematic review of qualitative studies. *Health and Social Care in the Community*, 30. Bol., 4. zkia, 2021, 1-15 or. Erref. 584320.

Berrikuspen sistematiko honek adineko pertsonen artean bakardadeari ematen zaizkion erantzun komunitarioak aztertzen ditu, bakardadearen aurkako kolektiborik ahulenetako bat baita. Horretarako, bost herrialdetan (Australia, Kanada, Espainia, Zeelanda Berria eta Erresuma Batua) egindako hamazazpi azterlan kualitatibo aztertzen ditu. Azterketaren ondorioen arabera, jarduera komunitarioetan parte hartuz gero, adin talde horretan bakardadea murriztu omen daiteke. Bereziki, parte-hartze soziala sustatzen duten eta babes emozionala eta praktikoa ematen duten belaunaldien eta arlo komunitarioaren arteko programek eragin positiboa izan dezakete bakardadean, baita murriztu ere. Artikulu horrek azpimarratzen duenez, talde baztertuek eta ezgaitasunen bat duten adinekoek programa komunitarioak diseinatzean eta ezartzean aurre egin behar dieten berriazko erronkei heltzea oso garrantzitsua da, komunitateko kide guztiek gizarteratzea eta bakardadea murriztea sustatzen duten programak eta zerbitzuak eskura dituztela ziurtatzeko. Azterlanak inplementatu nahi diren testuingurura egokitzen diren ekimenak diseinatzea eta bakardadearen faktore individualak faktore komunitarioak konpondu ondoren bakarrik kontuan hartzea gomendatzen du.

Arnosó, A. *et al.*

Loneliness as an unresolved issue in social inclusion programs. *Journal of Social Inclusion*, 30. Bol., 2. zkia, 17 or. Erref. 582638.

Nahi ez den bakardadeari buruzko ikerketak, batez ere, adineko pertsonengan zentratu dira. Artikulu honek bazterkerian dauden helduen bakardadea aztertzen du, edo zehatzago esateko, kolektibo horren bakardadeari aurre egiteko jardunbide egokiak eta erronkak detektatu nahi ditu. Horretarako, azterlanak Gipuzkoako gizarteratze-programa edo -zerbitzuetako 217 profesionalekin talde fokalak gauzatu zituen. Emaiztekin erakusten dutenez, testuinguru horretan banakako esku-hartzeak nagusitzen dira, nahiz eta gizarte-interakziorako, familia-sareei eusteko edo talde-jardueretan laguntza emanez parte hartzeok guneak ere sustatzen diren. Pertsona horiek harremanak izateko dituzten zailtasunak (motibaziorik eza, osasun txarra, gizarte-trebetasun urriak) esku-hartzeen erronka nagusitzat aipatzen dira, eta horiek ere oztopatu egiten dituzte profesionalizazio eskasak eta giza baliabide eta baliabide materialaren gabeziak. Azterlanak sinatzen duen taldeak ondorioztatzen duenez, sektoreko profesionalek erabiltzaileek beren bakardade-egoerarekiko duten erantzukizuna gaitzesmentu egiten dute, bazterketaren dimentsio sozialak alde batera utzita, eta horrek eragin negatiboa izan omen dezake gizarteratze-prozesuetan.

HH.EE.

La acción socioeducativa ante el reto de la soledad de los jóvenes. *Educación Social*, 80. zkia, 2022, 91 or. Ref. 576869.

Nahi ez den bakardadeari buruzko literaturak fenomeno sozial gisa adineko pertsonak hartu ditu aztergai nagusitzat. Hala ere, beste biztanleria-talde batzuetara bideratzen duten ikerketak gero eta gehiago dira, bereziki gazteriari. Ildo horretan kokatzen da *Educación Social* aldizkariaren monografiko hau, eta bertan, independentzia pertsonalaren aldarrikapena, pertsonen bizitzaren atomizazioa eta teknologia digitalek eskaintzen dituzten autonomia-aukerak aipatzen dira, adin talde horretan bakardade-egoerak areagotzea eragin duten faktore gisa. Hemen bildutako artikuluen artean, batzuek ikuspegi deskriptiboa hartzen dute, beste batzuek, berriz, gai teorikoak aztertzen dituzte, eta badira gizarte-arazo gero eta handiago horri aurre egiteko estrategia eta proposamen zehatzak iradokitzen dituztenak ere. Politikak eta esperientziak aztertzen dituzten artikuluek Ingalaterrari eta Bartzelonari arreta berezia eskaintzen diete, izan ere, gure inguruko bi lurraldeek, bakoitzak bere eskalan, nahi ez den bakardadeari heltzen aitzindari gisa jardun dute, eta beste administrazio publiko batzuen bidea markatu.


B

BALIABIDEAK

12 GIZARTERATUZ MONOGRAFIKOAK



Nahi gabeko bakardadeari buruzko baliabideak


Soledades. Observatorio Estatal de la Soledad no Deseada. Madril, ONCE Fundazioa Ref. 580008. 

Nahi ez den bakardadea lehen-mailako gizarte-arazotzat onartzeak hainbat behatoki sortzea ekarri du gure

ingurunean, gehienak hirugarren-sektoreko erakundeek bultzatuta. Denetan anbiziotsuena ONCE Fundazioa buru duen irabazi-asmorik gabeko erakundeen partzuergo batek babestutakoa da. Behatoki hori 2022ko apirilean sortu zen, sei atal nagusitan egituratuta dago eta etiketa tematikoen sistema bat du, erabilera nahiko intuitiboa ahalbidetzen duena. Sarrera gisakoak, "Nahi gabeko bakardadea" epigrafeak fenomeno hori ulertzeko gako batzuk eskaintzen ditu (zer den, nori eragiten dion, kausak, ondorioak eta gizarte-kostua). Jarraitzen duten lau atalak beste horrenbeste datu-basek osatzen dituzte, hurrenez hurren, azterlan, politika, esperientzia eta baliabideei eskainitakoak. Orrialdea gaurkotasunari buruzko atalarekin osatzen da, eta bertan berriki egindako ikerketen deialdiak eta aipamenak biltzen dira. Datu-baseen edukia oso zehatza ez bada ere, behatokia bere osotasunean hartuta, nahi ez den bakardadeari buruz gaztelaniaz dagoen dokumentu-iturri interesgarrienetako bat da.


Nola antzeman bakardadea adineko pertsonen artean?




Martínez, R.
Detectar la soledad durante el envejecimiento. Una guía. Seriea: La Soledad como Fenómeno Complejo, 2. zkia. Observatorio de la Soledad, 62 or. 2022. Erref. 571813. 

Bakardadea hautematea gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da esku-hartze sozialeko prozesuetan, baina adineko pertsonei arreta ematen zaienean horrek zailtasun berezia du, bakardadea, askotan, fenomeno naturalizatu eta estigmatizatu gisa agertzen baita adin talde horretan. Gizarte- eta osasun-zerbitzuetako lehen-mailako arretako profesionalentzat pentsatutako gida honen helburua adin talde horretan nahi ez den bakardadearen detekzioa hobetzea da. Dokumentua bost kapitulutan banatzen da, eta hemen bakardadea antzemateko iradokitzen den metodoaren gakoei dagozkie: profesionalak zeregin horretan duten protagonismoa aitortzea, nahi ez den bakardadea ulertzea, fenomenoaren konplexutasuna eta arrisku-faktoreak aintzat hartzea, pertsonak nahi ez den bakardadea duen aztertzea eta plan pertsonalizatuaren bitartez jardutea. Osagarri gisa, elkarrizketa batean nahi ez den bakardadea ikertzeko berariazko tresna bat erantsi da. Adinekoarekin alde aurretik lotura sendoa ezartzea, une egokia aukeratzea eta galdera egokiak planteatzea dira tresna honen funtsezko jarraibideak.

Bakardadea neurtzeko eskalak

Measuring Your Impact on Loneliness in Later Life. Londres, Campaign to End Loneliness, 40 or. 2015. Erref. 557952. 

Nahi ez den bakardadea esperientzia jariakor bat da —denbora gutxian joan daiteke, edo epe luzean iraun dezake—, eta akordio orokor baten arabera, gizarte-isolamenduz bestelako baldintza bat da. Horrelako bakardadea bizi duten adineko pertsonen kopuruak gora egin duela egiaztatu da, baina nola identifikatu egoera horrek gehien eragiten dien pertsonak? Gida hau adinekoekin lan egiten duten instituzio eta erakundeei zuzenduta dago, eta informazioa eta aholkularitza ematen ditu, adin talde horri zuzendutako zerbitzuen esparruan nahi ez den bakardadea neurtzeko eskalak aukeratzeari eta erabiltzeari buruz. Zehazki, ondoko lau eskala hauek aztertu dira: Campaign to End Loneliness Measurement Tool, De Jong Giervel egilearen proposamena, University of California-Los Angelesek aurkeztutakoa eta item bakarreko eskala. Dokumentuak azpimarratzen duenez, gizarte-harremanen kalitatea eta kantitatea kontuan hartzea esku-hartze baten ondorioak ebaluatzean garrantzitsua da. Gainera, bakardadea murrizteko helburu errealistak eta neurgarriak ezartzeko beharra azpimarratzen da, baita baldintza hori zein testuingurutan bizi daitekeen kontuan hartzekoa ere.



Bakardadeari aurre egiteko esku-hartzeen katalogoa

Jopling, K.

Promising Approaches Revisited: Effective Action on Loneliness in Later Life. Londres, Campaign to End Loneliness, 104 or. 2020. Erref. 557673.



Adinean gora egin ahala, bakardadea bizi duten pertsonen kopuruak gora egin du, eta horrek bakardadearen ondorioak eta, bereziki, osasun mentalean eta fisikoan dituen ondorioak ulertzeko modua aldatzea ekarri du. Isolamendu soziala egoera objektiboa den bitartean, harreman eta gizarte-kontaktu kopuruari dagokionean definitua, bakardadea esperientzia subjektiboa da. Covid-19aren pandemiak gizarte-harremanen garrantzia nabarmendu du, eta, ildo horretan, bakardadea osasun publikorako mehatxu gisa finkatu da. Gida honek

adinekoen bakardadeari aurre egiteko neurri baliagarriak azaltzen ditu, eskura dauden esperientzietan eta literatura akademikoan oinarrituta. Etorriz handiko esku-hartzeen artean daude, besteak beste, preskripzio sozialeko programak, adiskidetasun-harreman berriak sortzeko programak, irtenbide teknologikoak eta aktibo komunitarioak identifikatu eta mobilizatzen bideratutako ekimenak. Programa arrakastatsuen kasu-azterketak ere eskaintzen ditu, arduradun politikoei, profesionaleri eta erakundeei gomendio praktikoak ematen dizkietenak.

Bakarrik sentitzen diren gazteekin esku-hartzea



Dirección de Servicios de Infancia, Juventud y Personas Mayores.

Guía para la prevención, detección y acompañamiento de adolescentes y jóvenes en situaciones de soledad.

Bartzelona, Bartzelonako Udala, 59 or., 2021. Erref. 576845.



Nahi ez den bakardadea bereziki adineko pertsoneri dagokienez aztertu da, baina

azken urteetan bizi-zikloaren beste une batzuetan hasi dira ikerketak egiten, bereziki haurtzaroan, nerabeztaroen eta gaztearen. Nerabeekin eta gazteekin lan egiten duten profesionalentzako gida honen helburua adin talde horien bakardade-egoerei edo gizarte-isolamenduari buruzko orientazioa ematea da. Zehazki, bakardade-kasuak detektatzeko pertsona interesdunei tresnak ematea proposatzen da, prebenitzeko eta esku-hartzeko, bereziki arrisku-maila handiagoa eskatzen duten bizitranstizioeko egoeretan. Dokumentuan gazteek eta haien gizarte-inguruneak aktiboki parte-hartzea egiten diren ekimenetan gomendatzen da, eta, ildo horretan, bakardadearen aurkako ekintza oro egituratuko duen begirada komunitarioa aldarrikatzea. Gainera, gazteei beren komunitatearekin konektatzen eta harreman esanguratsuak eraikitzen laguntzeko estrategiak eta baliabideak iradokitzen ditu —adibidez, haien gizarte-harremanak deskribatzen dituzten mapak eginez—, eta,aldi berean, arazo konplexu horri aurre egiteko diziplina anitzeko ikuspegiaren beharra azpimarratzen du.

Gizarte-preskripzioa, bakardadearen aurkako tresna baliagarria



A Toolkit on How to Implement Social Prescribing. Manila,

Osasunaren Mundu Erakundearen Mendebaldeko Pazifikorako Eskualde Bulegoa, 52 or. 2022. Erref. 584262.



Gizarte-preskripzioa osasunaren ikuspegi holistikoa da, komunitatean oinarritutako arreta integratua sustatzen duena eta ohiko esku-hartze medikuek

gainditzera bultzatzen duena. Literatura zientifikoak agerian utzi duenez, sozialki isolatuta dauden edo bakarrik sentitzen diren pertsonak ikuspegi horretatik onura gehien atera dezaketenez biztanleria taldeetako bi dira. Gida praktikoa honek osasun-zerbitzuak, politikak formulatzeko ardura duten pertsonak eta beste pertsona interesdun batzuk orientatzen ditu, haien komunitateetan gizarte-preskripzioko programak garatzeko eta ezartzeko moduaren inguruan. Horrela, tokiko beharrak eta baliabideak identifikatzeko aholku praktikoak ematen ditu, erakunde komunitarioekin harremanak sortzeko, eta gizarte-preskripzioan oinarritutako zerbitzu eta programen ekitatea eta irisgarritasuna bermatzeko. Era berean, hainbat herrialde eta eskualdetako kasu-azterketak eskaintzen ditu, gizarte-preskripzioa hainbat inguruetan arrakastaz ezarri dela erakusteko. Arrakastaren gakoei dagokienez, dokumentuak lidergo sendoa, teknikarien motibazioa eta sormena, malgutasuna, sektoreen arteko lankidetzeta eta goragoko erakundeen konpromisoa dagoela adierazten du.

BEHATUZ TOPAKETA

“Bakardadeak: detekzioa eta esku-hartzea”: jardunaldiaren kronika

Behatuz Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiak, profesionalen prestakuntza eta kualifikaziora bideratutako jardueren esparruan, gizarte-zerbitzuen arloko eragileen arteko topaketak antolatzen hasi da, esperientzien trukea bultzatzeko eta ikaskuntza kolektiboa errazteko. Lehenengo Behatuz Topaketa aurreko maiatzaren 18an egin zen Bilbon, “Bakardadeak: detekzioa eta esku-hartzea” lelopean. Ekitaldia online ere jarraitu ahal izan zen eta bideoak eta materialak Interneten eskuragarri daude.

Ekitaldiaren egitarauan xehetasunez ikus daitekeenez, jardunaldia hiru bloke nagusiren inguruan antolatu zen. Lehenengoan, Elizabeth J. Casabiancak, Europako Batzordeko Ikerketa Zentro Bateratuko (*Joint Research Centre*) analistak, nahi ez den bakardadearen gakoak azaldu zituen laburki, eta bere erakundeak **Europar Batasunean arazo hori prebenitzeko eta arintzeko egiten ari diren esku-hartze**ei buruz egin duen ikerketaren ondorioak aurkeztu zituen. Bigarren blokea **bakardadeei aurre egiteko estrategia instituzionalei** buruzkoa izan zen, eta hiru foru-aldundietako eta Bartzelonako Udaleko teknikariek parte hartu zuten. Topaketaren azken zatian, **mahai-inguru bat egin zen Euskadiko bakardadeak antzemateko, prebenitzeko eta jorratzeko esperientziei buruz**, erakunde publikoek eta pribatuek sustatuta. Mahai

horretan, ondoko proiektu hauen berri eman zen: Begirada Adia, Teknoadineko, Bakardade Eskolak, Zilarrezko Haria, Bizkaia Saretu eta Agenda Nagusi.

Bakardadeen aurreko ekimenen mapa

Jardunaldiarekin batera, Euskadin bakardadeen aurka garatutako ekimenen mapa bat osatzen ari da, bakardadeei prebentzioaren, detekzioaren eta abordatzearen ardatzetatik aurre egiteko. Zehazki, haien jardun-eremua edozein dela ere, gutxienez honako **irizpide** hauetakoren bati erantzuten dioten ekimenak biltzen ditu:

- Helburu nagusia bakardade-egoerak berariaz prebenitzea izatea.
- Bakardadeak edo gizarte-isolamenduko prozesuak antzematea, baita egoera horiek eragin ditzaketen arrisku-faktoreak ere.
- Bakardade-egoerei aurre egitea, berariaz edo zeharka, gizarte-hauskortasuneko egoeretara edo balizko arrisku-faktoreen eragina minimizatzen bideratutako ekintzen bitartez.

Bilatazile oso intuitibo bati esker, webak aukera ematen du iragazteko ekimen motaren, eremu geografikoaren, irismen geografikoaren (tokikoa, lurraldekoa edo autonomikoa) eta hasiera-urtearen arabera, baita testu librearen arabera ere. Mapa elkarlanean eraikitzen ari da. Orain arte, 2 estrategia eta 37 esperientzia bildu dira, baina **ekimen berriak aurkezteko deialdia** zabalik dago.

Bakardadeei aurre egiteko euskal estrategia baterantz

Esperientziak trukatzeko eta elkar ikastea errazteaz gain, lehen Behatuz Topaketaren beste helburu bat bakardadeei buruzko estrategia autonomiko bat lantzeko prozesuan sortutako ezagutza erabiltzea zen. Topaketatik ateratako ondorioek bakardadeei buruzko etorkizuneko euskal estrategia horretarako zenbait lerro ematen dituzte:

- **Euskadin lehendik dauden ekimenak abiapuntu gisa hartu beharko lirateke**, inplikaturako premiak eta eragileak identifikatzeko eta inplikaturako eragileek partekatutako oinarriekin dokumentu bat osatzeko.
- **Estrategiaren helburua bakardadeak (pluralean) ikuspegi integral batetik jorratzea izango**




litzateke, alderdi pertsonalenak eta subjektiboenak (sentimenduak) zein familiari, komunitateari, erakunde- eta gizarte-egiturari dagozkienak barne hartuko lituzkeena, izaera objektiboagoa eta egiturazkoagoa baitute (harreman-isolamenduari lotuta), eta horrek ere arretagune izan beharko luke.

- Esku-hartze horretarako **zaintzarako tokiko ekosistemak** abian jarri beharko lirateke, hau da, etxebizitzaren inguruko laguntza-sareak, udalerrri edo auzo bakoitzean dauden erakunde publikoek eta hirugarren-sektoreak parte hartuko dutenak, funtsezkoa baita esku-hartzeak hurbileneko testuingurura egokitzea. Sareko lan horrek administrazio publikoen arteko sinergiak bilatzea eta nahi ez diren bakardadeen aurka sektoreen eta gizarte-eragileen arteko aliantza sendoa ezartzea eskatuko luke.
- Estrategia **bizi-ziklora bideratuta** egon beharko litzateke, adineko pertsonengan zentratuta egon arren, beste adin talde batzuen beharrak ere kontuan har ditzan, hala nola haurtzaroa (bereziki, tratu txarrak edo eskola-jazarpenak eragindakoa) edo familia-laguntzarako sarerik gabeko gazteria. Era berean, **genero-ikuspegi interseksionala** izan beharko luke, baliabideak eskuratzeko **ekitatea** bermatu beharko luke, eta **prebentzioa** eta **detekzio goiztiarra** oinarri hartu beharko lituzke.
- **Estrategian aurreikusitako jarduera guztiek ebidentzia zientifikoa gidari izan beharko lukete.**

Horregatik, bakardadeen prebalentziari, ondorioei eta kostuei buruzko azterlanak bultzatzea, egindako esku-hartzeak mapeatzea eta ebaluatzea, eta sortutako ezagutza partekatzea funtsezkoa da. Ezagutzaren kudeaketari dagokionez, Europako Batzordea —Ikerketa Zentro Bateratuaren bitartez— egiten ari den lana erreferentziatzat hartu behar da, eta Euskadin sortutako informazioa hark sortutakoarekin erraz aldera dadin saiatu.

- Esku-hartzeek **aurrez aurreko laguntza** indartu beharko lukete, baina **teknologia digitalek** loturak sortzeko eta mantentzeko eskaintzen dituzten aukerak integratuz.
- Era berean, **figura profesional berriak definitu** behar dira (gizarte-konektoreak), baita zerikusia duten profesionalen (ez bakarrik gizarte-zerbitzuetan, baita eremu soziosanitarioan ere) eta boluntarioen **prestakuntza** ere.
- Denborei dagokienez, **epe luzean lan egin beharko litzateke** —nahiz eta jarduketak legegintzaldiak markatzen dituen lau urteko aldietara egokitu daitezkeen—, etorkizun horretan baitihardu erronka demografikoak.
- Azkenik, **gizarte osoa inplikatzeko** ezinbestekoa izango litzateke, nahi ez den bakardadearen arazoa ezagutaraziz, gaur egun haren gainean dagoen estigmari aurre eginez eta pertsona orok gorabehera horri behar bezala aurre egitea ahalbidetuko duten trebetasunak eta gaitasunak garatzeko baliabideak jarritz. ●



2023 I EKAINA

GZ

GIZARTERATUZ
monografikoak

Edukiak

SIIS GIZARTE INFORMAZIO ETA
IKERKETA ZERBITZUA

Argitalpena

BEHATUZ. GIZARTE ZERBITZUEN
EUSKAL BEHATOKIA

Diseinua, ilustrazioa eta maketa

Concetta Probanza

Lizentzia



Dokumentu honek Creative Commons
Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioarteko Lizentzia du



BEHATUZ
GIZARTE ZERBITZUEN
EUSKAL BEHATOKIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES